

# UDALBILTZA<sup>®</sup>

## ADIERAZPEN INSTITUZIONALAK 2009



EUSKAL HERRIKO UDAL ETA UDAL HAUTETSIEIEN BILTZARRA

## EITBren AURKAKO ATENTATUA

2008ko azkeneko egunean, ETAk EITBren eta beste komunikabideen aurka eragin zuen atentatua dela eta UDALBILTZA®k zera adierazi nahi du:

EITBren eta beste hedabideen kontrako atentatuaren aurrean gaitzespenik tinkoena azaldu.

Komunikabideetako langileei elkartasun eta atxikimendu osoa adierazi.


Komunikabide baten kontrako eraso "informazio, komunikazio eta adierazpen askatasunaren kontrako eraso" da, gizateriaren oinarrizko eskubidea urratuz. ETA ez da inor inori isilarazteko.

ETArri exijitu indarkeria eta armen bidea behin betiko utz ditzala eta egiten duen azkeneko atentatua izan dadila.

Dei egiten diegu euskal hautetsi eta herritar guztiei atentatua gaitzesteko eta kalteturiko komunikabideei elkartasuna eta atxikimendua erakusteko burutuko diren ekitaldi guztietan parte har dezaten; azken batean, gure Herriaren bake eta normalizazio politikoaren alde lanean jarraitzeko.

Julian Eizmendi Zinkunegi  
UDALBILTZA®ko Lehendakaria

Euskal Herrian, 2009ko urtarrilaren 2an



## AKUSATUEN ERRUGABETASUNA

UDALBILTZA®k bidegabetzat jotzen du EAEko Justizi Auzitegi Nagusiak, Juan Jose Ibarretxe EAEKO Lehendakaria, PSE-EEko Patxi Lopez eta Rodolfo Ares eta Batasuneko Arnaldo Otegi, Fernando Barrena, Juan Jose Petrikorena, Rofi Etxeberria eta Olatz Dañobeitiaren aurka gaur hasi duen epaiketa.

Gatazkak konpontzeko dagoen biderik demokratikoenaren aurka jo du zuzen-zuzenean epaileak, elkarrekin hitz egitearen aurka. Epaiketa bera eta egiten diren zigor eskaerak gure erakundeei egiten zaien eraso larria dira, eta erakundeei ez ezik, azken batean, euskal gizarte osoari egiten zaion eraso.

Oker larria deritzogu botere judizialak politikagintza demokratikoaren jardunean behar ez bezala tartekatzeari, politikarien eta Lehendakaria beraren joko politikoa kriminalizatzeari, horretarako eta ez beste ezertarako demokratikoki aukeratuak izan direnean eta, hori gutxi balitz, Juan Jose Ibarretxe Lehendakariak euskal gizartearen ordezkari nagusia duenean.

UDALBILTZA®tik elkarrizketan oinarritutako eta inolako erasorik gabeko normalkuntza politikoaren aldeko gure konpromiso irmoa adierazten dugu beste behin ere. Erabateko babes agertu nahi diegu akusazio popularraren baitan inputaturiko guztiei eta guztiz sinetsita gaude epaiketan akusatuaren errugabetasuna frogatuko dela.

Julian Eizmendi Zinkunegi  
UDALBILTZA®ko Lehendakaria

Euskal Herrian, 2009ko urtarrilaren 8an

## **EZKER ABERTZALEKO KIDIAK KARTZELARA**

Urtarrilaren 23an atxilotu eta Espainiako Auzitegi Nazionaleko Baltasar Garzon epaileak Ezker Abertzaleko zortzi kideei ezarri dien kartzelaratzeko erabakiaren aurrean, Udalbiltza®k honakoa adierazi nahi du:

Herri honek biziki nahi duen normalkuntza politikoa elkarrizketaren bidez, negoziazioaz eta alderdi desberdinen arteko akordioaren eskutik ailegatuko da. Testuinguru honetan, jazarpen politikoak oztopo bihurtzen dira, baita giza eskubideen urraketa oro eta bortizkeriaren iraunkortasuna ere.

Honelako erabakiek sistema judiziala ukitu politikoez kutsaturik dagoela adierazten dute, hala nola: fiskaltza, Estatuko abokatutza eta Auzitegi Gorena. Iritzi politikoa eta indarkeria bi esparru guztiz ezberdinak direlako.

Era berean, Espainiako Estatuko fiskal nagusiak, Candido Conde Pumpido epaileak, D3M eta Askatasunaren zerrendak inpugnatzeko erakutsi duen asmoa erabat salagarritzat jotzen dugu. Alderdien legeak, alderdi politikoen ilegalizazioek eta beraien bozeramaleen atxiloketek, momentu hauetan Euskal Herrian bizi dugun gatazka areagotu besterik baitute egiten.

Huteskundeak, demokraziaren ezaugarri oinarritzkoenatariko bat izanik, edozein indar politikoaren parte hartzea debekatuta, zenbait pertsonen hautuari muzin egiten zaio, oinarritzkoa eta funtsezkoa den giza eskubidea urratuz, gure gizarteko normalizazio politikotik aldentuz.

Udalbiltza®tik berriz ere aldarrikatzen dugu irmotasunez, ideien askatasuna, aniztasun politikoaren eraso eta egitismo politikoaren defentsa eta hedapenei murrizketaren kontra gaudela, betiere demokraziaz eta inposaketarik gabe egiten badira.

Julian Eizmendi Zinkunegi  
UDALBILTZA®ko Lehendakaria

Euskal Herrian, 2009ko urtarrilaren 28an

## **NAFARROAKO GOBERNUAK EUSKAL IRRATIEN EMANKIZUNAK ETETEKO HARTU DUEN ERABAKIA**

Nafarroako Gobernuak AENAREN informea aitzakitzat hartuta, Iruñerriko euskarazko irratia, Euskadi Irratia, Euskalerrria Irratia eta Radio Euskadiren emankizunak eteteko hartu duen erabakiaren aurrean, Udalbiltzaatik zera adierazi nahi dugu, adierazpen, informazio askatasunaren eta euskararen alde:

Emankizunak etetearekin, Iruñerrian aspaldidanik tinko errotu diren euskarazko komunikabideen eta entzule sare indartsuaren aurkako eraso da.

Halaber, adierazpen askatasuna, informazio askatasuna, hala nola euskara eta gure kulturaren aurkako eraso.

Lizentziak ez ematea ere, Euskalerrria Irratia kasurako.

Ekimen honek azpian duen asmo politikoa salatzen dugu eta, era berean, azpimarratu nahi dugu botere Judizialak geroz eta gardentasun demokratiko gutxiago duela eta botere politikoaren eragina geroz eta indartsuago nozitzen duela.

Harturiko erabaki sasi-politikoak atzera botatzeko eskatu eta exijitzen diogu Nafarroako Gobernuari. Horregatik, Iruñerriko eta euskal hautetsi eta herritar guztiei euskal komunikabideen aurkako eraso gaitzesteko eta kalteturiko komunikabideei elkartasuna eta atxikimendua erakusteko burutuko diren ekitaldi guztietan parte har dezaten dei egiten diegu.

Julian Eizmendi Zinkunegi  
UDALBILTZA®ko Lehendakaria

Euskal Herrian, 2009ko ekainaren 18an

## **EDUARDO PUELLES GARCÍAAREN ERAILKETA**

ETAk, gaur Arrigorriagan Eduardo Puelles García polizi inspektorea erail duela eta, Udalbiltza®k zera adierazi nahi du:

- 1.- Eduardo Puelles García heriotza eragin duen atentatuaren aurrean bere gaitzespenik tinkoena azaldu.
- 2.- Familiari, lagunei eta lankideei elkartasun eta doluminik sentikorrena adierazi.
- 3.- ETari exijitu indakeria eta armen bidea behin betiko utz ditzala.

Gaurko atentatua, Euskal Herria, demokrazia, bakea eta normalizazio politikoaren kontrako atentatua izan da. Horregatik dei egiten diegu euskal hautetsi eta herritar guztiei ETaren ekintzak eta indakeria salatzeke udaletxe eta erakundeen aurrean eginen diren kontzentrazioetan parte har dezaten; bakea, normalizazio politikoa eta euskal aberriaren alde.

Julian Eizmendi Zinkunegi  
UDALBILTZA®ko Lehendakaria

Euskal Herrian, 2009ko ekainaren 19an

## **ETAK MALLORKAN BI GUARDIA ZIBIL ERAIL ETA BURGOSEN EGINDAKO ATENTATUEN KARIRA**

1.- Diego Salvá Lezaun eta Carlos Saenz de Tejadaren heriotzak eragin duen atentatuaren aurrean eta Burgosko sarraski-saiakeraren inguruan bere gaitzespenik tinkoena azaldu.

2.- Familiari, lagunei eta lankideei eta biktima guztiei elkartasun eta doluminik sentikorrena adierazi.

3.- ETaren aurka gure gaitzespenik sendoena eta armen bidea behin betiko utz ditzala: terrorea eta hondamendia izan den 50 urteko aldi honetan bukatu beharra dugu. Jakin badakite ez dutela babes politikorik ezta gizartekoa ere.

Gaurko eta atzoko atentatuak, Euskal Herria, demokrazia, bakea eta normalizazio politikoaren kontrako atentatuak izan dira. Horregatik dei egiten diegu euskal hautetsi eta herritar guztiei ETaren ekintzak eta indarkeria salatzeke udaletxe eta erakundeen aurrean eginen diren kontzentrazioetan parte har dezaten; bakea, normalizazio politikoa eta euskal aberriaren alde.

UDALBILTZA®ko Zuzendaritza Batzordea

Euskal Herrian, 2009ko uztailaren 31an

## **JOSE MARI AGIRREREN HERIOTZAREN DELA ETA, UDALBIDE-UDALBILTZA®REN DOLUMINAK**

Jose Mari Agirre, Txatoren heriotzaren berriak hunkituta, UDALBIDE-UDALBILTZA®ren Zuzendaritza Batzordeak, bere doluminik sakonena adierazi nahi du politikari eta euskaltzale honen galeragatik. Bere hutsunea nabaria izanen da hainbat esparrutan, bere gizatasunagatik eta, bereziki, Euskal Herriko politikagintzari eskaini dion ekarpenarengatik. Tolosako udaleko zinegotzi, aldundiko diputatu eta Eusko Jaurlaritzan hainbat kargu izateaz gain, UDALBIDEko Zuzendaritza Batzordeko kide izan baitzen 1999ko irailetik 2003ko azaroak bitarte.

Bizimodua Tolosan egiten zuen, eta Ataungoa (Gipuzkoa) zen jaiotzez. 66 urte zituen, ezkondata zegoen, eta bi semeren aita zen. Mendizale porrokatua zen, eta parapentea eta eskia ere gustuko zituen.

Ekonomia lizentziaduna zen, Belgikako unibertsitate batean. Aditua zen, eta, horregatik, Juan Jose Ibarretxeren aholkulari lanetan aritu zen hura Eusko Jaurlaritzako lehendakari izan zenean. Ez zen hori izan Jaurlaritzan eduki zuen ardura bakarra. Izan ere, Mari Karmen Garmendia Kultura sailburua zenean, sailburuorde karguan aritu zen Agirre.

Jaurlaritzan ez ezik, beste hainbat erakundetan ere bete zituen karguak. Ibilbide politiko oparoa zuen. 1987tik 1991ra, Ekonomia diputatua izan zen Gipuzkoan. Tolosako zinegotzi ere izan zen bi legegintzalditan, 1996tik 2003ra. Herri horretan 90eko hamarkadan sortu zen Galtzaundi forumeko sortzaileetako bat ere izan zen. Zinegotzi zen garaian, Udalbiltza- Udalbideren sorreran ere parte hartu zuen, Zuzendaritza Batzordean egonik, 1999tik 2003ra.

Horrez gain, Kutxako presidenteordea eta Euskal Estatistika Institutuko (Eustat) zuzendaria ere izan zen.

Gustuko zituen bertsoak, eta baita idaztea ere. Euskaltzalea zen, eta Euskaldunon Egunkaria-n asteroko zutabea idazten zuen, Seiko urrea izenarekin.

Udalbidek bere doluminak adierazi nahi dizkio momentu gogor hauetan `Txato´ren familia, lagun eta lankide guztiei. Agur betirako

Udalbideko Zuzendaritza Batzordea

Euskal Herrian, 2009ko abuztuaren 8an

## **EZKER ABERTZALEKO ORDEZKARIEN ATXILOKETA**

Espainiako Auzitegi Nazionaleko Baltasar Garzon epaileak, urriaren 13an Arnaldo Otegi, Rafa Díez Usabiaga, Rofi Etxeberria eta beste zazpi Ezker Abertzaleko ordezkari atxilotzeko erabakiaren aurrean, UDALBILTZA®ko ordezkariok honakoa adierazten dugu:

Atxilotutako pertsonen eskubide zibil eta politikoak urratzearekin batera, Euskal Herriko normalkuntza politikoaren konponbiderako eta bakea lortzeko saiakeraren aurkako erasotzat hartzen dugu. Herri honek biziki nahi duen normalkuntza politikoa elkarrizketaren bidez, negoziazioaz eta alderdi desberdinen arteko akordioaren eskutik soilik, iritsiko baita.

Parte-hartze politikoa eta indarkeria bi esparru guztiz ezberdinak direnez. Onartezina da `guztia terrorismoa´ dela ondorioztatzea. Honelako erabakiek sistema judiziala ukitu politikoez kutsaturik dagoela adierazten dute. Honen karira, deigarria deritzogu, Perez Rubalcaba barne ministroak, aurreko abuztuan egindako adierazpenen arabera, ezker abertzaleko espresio bakar batek ere "ETAren biolentzia gaitzetsi arren, ez luke politika egiteko aukerarik izanen, ETA dagoen bitartean".

UDALBILTZA®tik berriz ere aldarrikatzen dugu irmotasunez, ideien askatasuna, aniztasun politikoaren eraso eta egitismo politikoen defentsa eta hedapenei murrizketaren kontra gaudela, betiere demokraziaz eta inposaketarik gabe egiten badira.

**UDALBILTZA®ko ZUZENDARITZA BATZORDEA**

Euskal Herrian, 2009ko urriaren 15ean

## SEGI ERAKUNDEAREKIN LOTUTAKO 36 GAZTEEN ATXILOKETAK

Fernando Grande Marlaska Espainiako Auzitegi Nazionaleko epailearen aginduz, azaroaren 24ean Segi erakundearekin lotuta 36 gazte atxilotzearen aurrean, UDALBILTZA@ko ordezkariok honakoa adierazten dugu:

Atxilotutako pertsonen eskubide zibil eta politikoak urratzearekin batera, Euskal Herriko normalkuntza politikoaren konponbiderako eta bakea lortzeko saiakeraren aurkako erasotzat hartzen dugu. Herri honek biziki nahi duen normalkuntza politikoa elkarrizketaren bidez, negoziazioaz eta alderdi desberdinen arteko akordioaren eskutik soilik, iritsiko baita.

Parte-hartze politikoa eta indarkeria bi esparru guztiz ezberdinak direnez. Onartezina da 'guztia terrorismoa' dela ondorioztatzea. Batzuren esanetan, atxilotutakoak Segi-ko kideak izateagatik, ETA-ko kide dira. Entzun diren beste hainbat balorazioaren arabera "atxiloketa hauekin ETA harrobirik gabe utzi da". Zergatik izan dira atxilotuak?, ETA-kide izanagatik edo egunen batetan, akaso, ETA-kide izatera iritsiko zirelako?. Non daude zuzenbidezko estatu batek nahitaezkoak dituen berme eta printzipio juridikoak?

Atxiloturiko gazteen deklarazioak hartzeko orduan, inkomunikazioak, senitartekoen arteko nahigabea dakar. Prozesu judizial guztietan bezala gardentasuna eskatzen dugu.

Guztiz arbuigarria da baita ere, asteburuan jasotako kale eta autobus erasoak. Indarkeriaren bidetik noraezean ibiliko baikara beti.

UDALBILTZA@tik berriz ere aldarrikatzen dugu irmotasunez, ideien askatasuna, aniztasun politikoaren eraso eta egitasmo politikoaren defentsa eta hedapenei murrizketaren kontra gaudela, betiere demokraziaz eta inposaketarik gabe giten badira.

UDALBILTZA@ko ZUZENDARITZA BATZORDEA

Euskal Herrian, 2009ko azaroaren 30ean

## EGUNKARIKO AUZIPETUEKIN ELKARTASUNA

Bere garaian, 2003an, Egunkaria-ren itxiera salatu genuen bezalaxe, oraingoan ere UDALBILTZA®tik bidegabekeria hura eta auzipetzea salatu nahi ditugu. Adierazpen askatasunari eta euskarari egin zaion eraso larrienetako baten aurrean gaude.

1. Halaber, adierazpen askatasuna, informazio askatasuna, hala nola euskara eta gure kulturaren aurkako eraso.
2. Ekimen honek azpian duen asmo politikoa salatzen dugu eta, era berean, azpimarratu nahi dugu botere Judizialak geroz eta gardentasun demokratiko gutxiago duela eta botere politikoaren eragina geroz eta indartsuago nozitzen duela.

Geurea egiten dugu Egunkaria libre! oihua eta hilaren 19an, Bilboko kaleetan izango gara.

Udalbiltza®ko Zuzendaritza Batzordea

2009ko abenduaren 15ean